

EUSKAL HERRIKO KIROL MARKAK ETA ERREKORRAK

<https://kiolerrekorrak.eus/>



**2022ko kirol errekorrak**

**2022ko marka berriak**

.....

## ATLETISMOA

Gizonak

Absolutoak

(Estalian)

.....

Donostia, 2022ko abenduaren 21a

## ABSOLUTOAK / GIZONAK / Estalian

PROBA	ATLETA	URTEA	KLUBA	MARKA	DA
60	Valentin Rocandio	1963	ASS	6.73	10.
60	Jon Gutierrez	1977	UPV	6.73	16.
60	Orkatz Beitia	1979	UPV	6.73	20.
200	Orkatz Beitia	1979	UPV	21.39	03.
400	Adrian Rocandio	1979	RS	47.20	20.
800	Victor Rojas	1968	GUIS	1.49.88	16.
1.500	Victor Rojas	1968	GUIS	3.39.24	28.
3.000	Victor Rojas	1968	GUIS	7.50.04	01.
60 hesi	Asier Martinez Etxarte	2000	PAT	7.55	22.
Altuera	Roberto Cabrejas	1952	TCF	2.24	21.
Pertika	Montxu Miranda	1976	CHA	5.78	98.
Luzera	Jabier San Adrian	1967	RS	7.66	10.
Hirukoitza	Luis Felipe Areta	1942	ASS	16.47	10.
Hirukoitza	Ramon Cid	1954	RS	16.47	06.
Pisua	Carlos Tobalina	1958	FCB	20.50	05.
Heptatloia	Pablo Martinez Gereñu	1996	DUR	5.462 puntu	20.



→ <https://kirolerrekorrak.eus/estanis-ruizek-errekor-berria-ezarri-du-3000-metro-libreetan/>

## **Estanis Ruizek errekor berria ezarri du 3000 metro libreetan**

2022.12.26 | [ATLETISMOA](#), [EHKM](#), [ERREKORRAK](#), [ERRREKOR BERRIA](#), [GIZONAK](#)

**Bigarren sailkatu zen 22 urteko nafarra, zeinak 8:08.04ko erregistroarekin jada berea zen Euskal Herriko 23 urtez azpikoen errekorra ezarri zuen, pista estalian**

Anoetako Belodromoan lehiatu zen pasa den ostiralean, 2022ko udazken-negu honetako parte-hartze libreko proben hirugarren jardunaldia, non proba erregina 3.000 metroko lasterketak izan ziren, 11 gizonezkoenak eta 3 emakumezkoenak, guztira 180 atleta izena emanda zutelarik.

Maila handikoa izan zen gizonezkoen 3.000 metroetako lehen seriea, Mohamed Attaoui kantabriarrak (21 urte) irabazi zuena 8.00.33ko markarekin. Joan den igandean 800 metroko proba ere aise irabazi zuen Attaouik.

Bigarren izan zen AEBtan ikasten duen Estanislao Nicolas Ruiz nafarra (22 urte), zeinak 8:08.04ko erregistroarekin jada berea zen Euskal Herriko 23 urtez azpikoen errekorra ezarri zuen, pista estalian.

### **SAILKAPENA**

1 Mohamed Attaoui Atletismo Torrelavega 8.00.33

**2 Estanis Ruiz Grupompleo Pamplona Atletico 8.08.04**

3 Marcos Rojo Carnicas Serrano 8.12.69

4 Sergio Martinez Atletismo Soria 8.20.32

5 Pablo Otero S.G. Pontevedra 8.20.80

6 Luis Pastor At. Intec-Zoiti 8.20. 86

7 Ayrton Azkue At. Ardoi 8.24.39

8 Atarratze Beñat Rota Hiru-Herri 8.24.53

9 David Martinez Clinica Menorca 8.27.04

10 Amine Bougrine Durango Kirol Taldea 8.32.34

Pasa den ekainean, Estanis Ruizek 23 urtez azpiko errekorra hautsi zuen ere, honakoan 3000 metro oztopodunetan. 8'29"12ko denbora eginda, 1988. urtean Jon Azkuetak egindako marka hautsi zuen, Eugen (Oregon) lehiaturiko The NCAA Outdoor Track & Field Championships izeneko txapelketan. Ordura arteko 23 urtez azpiko Euskal Herriko errekorra 3.000 metro oztopodunak lasterketan, Jon Azkuetak zuen, 8.30.41ko markarekin, A Coruñan lorturikoa 1988. urteko abuztuaren 4an.

→ <https://kirolerrekorrak.eus/iaz-azarritako-errekorra-berdindu-du-isaac-naderrek-bilboko-n>

## **Iaz azarritako errekorra berdindu du Isaac Naderrek Bilboko Nazioarteko Milian**

2022.10.17 | [EHKM](#), [ERREKORRAK](#), [LASTERKETAK](#)

Naderrek (duela astebete Berangoko Milia ere irabazitakoa) 4 minutu eta 21 segundoko denbora egin zuen, iaz Portugaleko atletak berak lortutako errekorra berdindu zuelarik

Isaac Nader portugaldarrak, iazko irabazlea, eta Marta Garcia leondarrak irabazi zuten pasa den larunbatean Bilboko Nazioarteko XVI. Miliako lasterketa nagusia. Gizonezkoen proban, Naderrek (duela astebete Berangoko Milia ere irabazitakoa) 4 minutu eta 21 segundoko denbora egin zuen, iaz Portugaleko atletak berak lortutako errekorra berdindu zuelarik.

Faroko korrikalaria Nacho Fontes granadarraren eta Pol Oriach huescarraren aurretik helmugaratu zen, azken txanpan bere abiadura inposatuz. Fontesek, joan den asteazkenean Milla de Jaen irabazi zuenak, erritmo bizia ezarri zuen lasterketaren erdian, eta taldea txikitu bazuen ere, ezin izan zuen Nader atzean utzi. Europa mailako atletarik onenetariko izandako Marcin Lewandowski 7. eta 10. postuen artean ibili zen lasterketan zehar, azkenean 14. postuan amaitu zuelarik. Mariano Garcia nabarmendu zen hasieran, baina amore eman zuen eta beste horrenbeste gertatu zitzaion Alvaro de Arribari. Pol Oriachek aurrera egin zuen, Nader eta Fontes mehatxatuz, baina azken esprinta hauen artean lehiatu zen, azken metroetan 1500eko Portugalgo txapeldunak segundo bateko aldea atera ziolarik Nike Runningeko korrikalariari.

Bestalde, emakumezkoen lehian, probaren antolakuntzaz arduraturiko Bilbao Atletismo Santutxu klubeko Marta Garciak eskuratu zuen garaipena. Madrilgo Nazioarteko Milia irabazi eta gero, esprint estu batean gaintu zituen Agueda Marques segoviarra (bigarrena Berangon) eta Carolina Robles sevillarra (3.000 oztopoko finalista olinpikoa).

Hasieran Majida Maayouf marokoarrak bizkortu zuen lasterketa, eta gero Solange Pereirak eta Carolina Roblesek hartu zuten bere erreleboa. Azken 400 metroetan ordea, Agueda Marquesek eta Marta Garciak borrokatu zuten garaipena eta Garcia nagusitu zen 4:59ko denborarekin, bere aurkariari esleitutako erlojupeko berarekin.

### **SAILKAPENA**

#### Gizonezkoak

**1 Isaac Nader 4:21**

2 Ignacio Fontes 4:22

3 Pol Oriach 4:23

4 Jesus Gomez 4:24

5 Gonzalo Parra 4:26

#### Emakumezkoak

**1 Marta Garcia 4:59**

2 Agueda Marques 4:59

3 Carolina Robles 5:01

4 Solange Pereira 5:03

5 Zoya Naumov 5:04

→ <https://kirolerrekorrak.eus/asier-martinezek-balentria-berria-burutu-du/>

## **Asier Martinezek balentria berria burutu du**

2022.08.18 | [ATLETISMOA](#), [EHKM](#), [ERREKORRAK](#), [ERRREKOR BERRIA](#), [GIZONAK](#)

Munichen jokaturiko Europako Txapelketa irabazteaz gain, Zizur Nagusiko kirolariak bere markarik onena (13,14) lortu zuen, aurretik bereak ziren 110 metro hesiduneko probako Euskal Herriko errekor absolutoa zein 23 urtez azpikoa (13,17) hautsi zituelarik

Asier Martinezek urrezko domina lortu zuen iragan asteazkenean, hilak 17, Munichen jokaturiko Europako Txapelketan, 110 metroko hesidun proban garaipena erdietsita, 13,14 segundoko markarekin. Finalean, milaren bakarragatik hartu zuen mendean Martinot-Lagarde frantziarra.

**Gainera, Europako Txapelketa irabazteaz gain, Zizur Nagusiko kirolariak bere markarik onena (13,14) lortu zuen, aurretik bereak ziren Euskal Herriko errekor absolutoa zein 23 urtez azpikoa (13,17) hautsi zituelarik.**

Asierren lehen afizioa altuera jauzia izan zen baina ondoren proba hesidunetan korrika egitera pasa zen, berehala nazioartean lehiatzeari ekin ziolarik, 2019ko 20 urtez azpiko Europako Txapelketan debuta egin zuelarik.

2021ean 23 urtez azpiko zein maila absolutoko 110 metro hesidunetako Euskal Herriko errekorak erdietsi zituen, 13.22ko kronoarekin, bide batez Tokioko Joku Olinpikoetan seigarren postuan geratu zelarik.

Aurten, Eugen (Oregon) lehiaturiko Atletismoko Munduko txapelketan, brontzezko domina irabazi zuen uztailean 2000. urteko apirilaren 22an jaiotako zizurtarrak. 13,17ko marka horrekin, jadanik bereak ziren Euskal Herriko 23 urtez azpiko zein absoluto mailako errekorak egin zituen Martinezek, 110 metro hesidunetan.

Oraingoan baina, bere maila puntu bat gorago igo du Martinezek, izan ere, Zizur Nagusiko atletak 13.14ko marka egin zuen Munichen jokatu berri den Europako txapelketan, inoizko bere marka pertsonalik onena.

Finalerdian bosgarren kaletik aritu zen nafarra eta bere serieko lehena izan zen 13.25eko erregistroarekin. Serie bakoitzeko bi atleta onenak zuzenean sailkatzen ziren finalera, eta denbora onenak zituzten beste bi atletak gehitu zitzaizkien.

Final handian, nafarrak bere kalitatea eta abiadura erakutsi zituen urrezko domina zintzilikatzeko. Gainera, laugarren kaletik jardunda, historiako atleta handien antzera.

Irteeran, 0.149ko erreakzio-denbora izan zuen eta bitxia bada ere, lehen hesia bota zuen. Handik aurrera, Martinot-Lagarderekin izan zuen lehia oso estua izan zen, eta helmugako marraren ganean erabaki zen irabazlea, azkenean Martinezek milaren bategatik irabazi ziolarik Pascal Martinot-Lagarderi (bien denbora 13.14koa izan zen). Beste frantziar bat, Just Kwaou-Mathey, izan zen hirugarren, 13,33 segundoko markarekin.

Etxean bezala sentitu zen nafarra, izan ere, bere hurbileko jende andana gertu izan zuen uneoro animoak ematen eta balentria berri hau haiekin ospatzeko aukera izan zuen: bere aitarekin (amak ezin izan zuen joan izan) eta lagun guztiekin, alegia.

Beraz, urtebetean, hiru lehiaketa handi eta hiru emaitza ikusgarri kateatu ditu nafarrak: seigarren izan zen Olinpiar Jokoetan, hirugarren Munduko Txapelketan eta lehenengoa Europakoan.

→ <https://kiolerrekorrak.eus/markel-fernandezek-400-metroko-errekora-absolutoa-hautsi-du/>

## **Markel Fernandezek 400 metroko errekora absolutoa hautsi du**

2022.07.21 | [ATLETISMOA](#), [EHKM](#), [ERREKORRAK](#), [ERRREKOR BERRIA](#), [GIZONAK](#)

**46.21ko denbora egin zuen pasa den igandeko saioan eta Euskal Herriko errekora absolutoa eskuratu zuen, aurretik Juan Jose Pradoren eskuetan zegoena. Pradok (1956), 1985. urteko uztailaren 13an lortu zuen errekorra Fuenlabradan, 46.55ko denborarekin**

Pasa den asteburuan, Valentziako Torrent herrian lehiatu zen Estatu mailako 20 urtez azpiko atletismo txapelketa, eta hantxe aritu zen Durango Kirol Taldeko Markel Fernandez Soto (2003, Sopela), bere espezialitatea den 400 metroan egindako lana distiratsua izan zelarik.

Izan ere, 46.21ko denbora eginda urrezko domina golkoratu zuen, bidenabar abuztuaren 1etik 7ra Kolonbiako Cali herrian egingo den munduko txapelketan aritzeko gutxieneko denbora lortu zuelarik.

Sekulako lasterketaldi honekin gainera, Euskal Herriko errekora absolutoa eskuratu zuen, aurretik Juan Jose Pradoren eskuetan zegoena. Pradok (1956), 1985. urteko uztailaren 13an lortu zuen errekorra Fuenlabradan, 46.55ko denbora eginda.

Juan Jose Prado korrikalari bikaina izandakoa dugu, erreleboka eta 200 zein 400 metroan marka bikainak eskuratu dituena, oraingoan 37 urtez indarrean izan duen Euskal Herriko errekorra ondu duelarik Markel Fernandezek.

Iragan otsailean 19 urte bete zituelarik (2003/02/06), errekora absolutoz gain, Euskal Herri mailako 23 urtez zein 20 urtez azpiko markarik onenak ere ezarri zituen sopoloztarrak.

23 urtez azpiko errekorra Adrian Rocandiorena (1997) zen, 2019ko ekainaren 15ean Sorian egindakoa: 46.80. 20 urtez azpikoena berriz, 46.93, luzez iraun zuen Oscar Albalaten (1984) eskuetan, 2003. urteko ekainaren 29an ezarri baitzuen Gasteizen baina ekainaren amaieran Fernandezek berak hautsi zuen Nejarren, Estatu mailako txapelketa absolutoan 46.82ko denbora eginda.

Sopoloztarra txirrindularitzan hasi zen bere garaian eta 800 metroko proban ere aritutakoa da baina duda barik bere espezialidade kuttunena 400 metroak dira eta azkenaldiontan sasoiko dagoela erakutsi du behin eta berriro.

→ <https://kiolerrekorrak.eus/imanol-egidazuk-errekora-jarri-du-18-urtez-azpiko-dekatloian/>

## **Imanol Egidazuk errekora jarri du 18 urtez azpiko dekatloian**

2022.06.21 | [ATLETISMOA](#), [EHKM](#), [ERREKORRAK](#), [ERRREKOR BERRIA](#), [GIZONAK](#)

Pasa den igandeko lehiaketan 7.355 puntu bilduta, iazko uztailaren 25ean berak lortu zuen marka (6.551) hautsi zuen

Imanol Egidazu de Diego eibartarrak 18 urtez azpiko Euskal Herriko errekorra hautsi zuen dekatloiko proban, pasa den asteburuan Xerezen lehiaturiko Estatu mailako txapelketan.

Eibarko Kirol Klub taldeko kirolariak urrezko domina eskuratu zuen igandean, ekainak 19, guztira 7.355 puntu lortuta, bigarren sailkatuari 700 puntu baino gehiagoko aldea aterata.

Puntuazio horrekin aurretik berea zuen Euskal Herri mailako marka hautsi zuen, iazko uztailaren 25ean lortu zuena Huelvan, 6.551 puntu pilatuta.

Proba konbinatua osatzen duten 10 probetatik, Egidazuk bost irabazi zituen (pisua, 400 metroak, 110 metro hesidunak, pertika eta xabalina), bere emaitzak honakoak izan zirelarik: 11.18 100 m-tan, 6.30 m luzeran, 14.65 m pisan, 1.85 m altueran, 49.94 m 400 m-tan, 14.10 m hesietan, 40.29 m diskoan, 4.25 m pertikan, 53.09 m xabalinan eta 4: 41.11 m 1500ean.

2005ean jaioa, oraindik 16 urte dituen atletak, 1.84 metroko altuera eta 70 kiloko pisua dauka. Bere gurasoak kirolariak dira, aita atletismoan aritzen da eta ama eskubaloian, eta Imanol betidanik izan du kirolarekiko grina. 8 urterekin atletismoari ekin zion eta 10ekin jada astero bi egun entrenatzen eta eskolarteko lehiaketetan parte hartzen hasi zen.

Dema ezberdinetan emaitza onak eskuratzen zituenez, proba konbinatueterako urratsa eman zuen, eta dagoeneko Euskal Herri mailako markarik onenak bereak dira dagokion kategorian.

→ <https://kirolerrekorrak.eus/iker-arotzenak-luzera-jauziaren-errekorra-hautsi-du/>

## **Iker Arotzenak luzerako jauziaren errekorra hautsi du**

2022.05.30 | [ATLETISMOA](#), [ERREKORRAK](#), [ERRREKOR BERRIA](#), [GIZONAK](#)

### **Super Amara BAT taldeko hondarribiarrak Errioxako Sari Nagusia irabazi du 7,81 metroko jauziarekin**

Iker Arotzenak Euskal Herriko luzera jauziko errekorra lortu zuen pasa den larunbatean Logroñon

Super Amara BAT taldeko hondarribiarrak Errioxako Sari Nagusia irabazi du 7,81 metroko jauziarekin, hiru aste lehenago berak ezarri zuen eta Javier San Adrian eta 'Pipe' Aretarekin partekatzen zuen marka lau zentimetrotan hobetuz. Azken saiakeran izan zen (+1,7 m/s aldeko haizea), 7,70 metroko bi jauzi egin ondoren.

Esan bezala, maiatzaren 8an Murtzian dagoeneko luzera jauziko errekorra berdindu zuen, 20 urteko atleta hondarribiarrak 7,77 metro (+0,4 m/s) egin baitzuen jauzi Espainiako Unibertsitate Txapelketan -UPVren ordezkaria lez-, arazorik gabe irabazi zuelarik lehiaketa. 1986an Javier San Adrianek eta 1963an 'Pipe' Aretak egin zuten marka berdindu zuen beraz. Murtziako txapelketan Arozenak beste bi saiakera handi egin zituen: 7,72 eta 7,73.

Iaz ere, Euskal Herriko marka kolokan jartzeko zorian egon zen 7,69 metrorainoko hegaldiarekin, legezko haizearekin. Are gehiago, San Adrianek eta Aretak egin zuten marka gainditu egin zuen 7,87 metrotik gora salto eginda, nahiz eta haize handiegiak (+2,1 m/s) errekorrik gabe utzi zuen. Orduko hartan, jauzilari gazteak

iazko udan izandako saiheits-hezurreko hausturatik erabat sendatuta zegoela erakutsi zuen, eta 10 hilabetez lesionatuta egon ondoren bere mailarik onena eman zuen, larunbateko errekorren lorpenarekin berretsi duena oraingoan.

→ <https://kirolerrekorak.eus/asier-martinezek-hobetu-egin-du-60-hesiak-pista-esta/>

## Asier Martinez pista estaliko 60 hesiak probako errekorren jabe

2022.04.6 | [ATLETISMOA](#), [ERREKORRAK](#), [ERRREKOR BERRIA](#), [GIZONAK](#) |

7.55 marka egin zuen otsailaren 12an Meetz Moselle Athlelor Indor atletismo jardunaldietan. Lehenago ere berak zuen Euskal Herriko errekorra, 7.60 markarekin

**Asier Martínez Etxarte** zizurnagusitarrak 7.55 segundutan jarri zuen Euskal Herriko errekorra pista estaliko 60 m. hesietan 2022ko otsailaren 12an Metz (Frantzia) jokaturako finalean. Proba horretan hirugarren postua egin zuen Martinot-Lagarde (7.51) eta Belocian (7.52) frantziarren ondok.

Lehenagotik ere Martinezek berak zeukan Euskal Herriko errekorra 7.60 markarekin. Bi aldiz jaitsi zuen marka hori Metz Moselle Athlelor Indoor jardunaldietan: finalerdietan 7.56 egin zuen, eta finalean, 7.55.

2022ko martxoaren 19an Belgraden jokaturako pista estaliko Munduko Txapelketan berdindu egin zuen 7.55 denbora, finalaurreko kanporaketan. Finalean, laugarren postua eskuratu zuen 7.57 denborarekin.

110 m. hesiak probako Euskal Herriko errekorra ere dauka Asier Martinezek, Tokioko Olinpiar Jokoetako finalean 6. postuan egindako 13.22 markarekin.

### Asier Martinezen marka pertsonalak:

#### Aire librean

PROBA	MARKA	HAIZEA	LEKUA	DATA	
110 m. hesiak	13.22	-0.5	Tokio	2021.08.05	Euskal Herriko Errekorra
100 m.	10.55	+0.9	Castello	2021.05.15	
Altuera jauzia	2.04	—	Iruñea	2017.07.27	

#### Pista estalian

PROBA	MARKA	LEKUA	DATA	
60 m. hesiak	7.55	Metz	2022.02.12	Euskal Herriko Errekorra
60 m.	6.86	Donostia	2021.01.30	
Altuera jauzia	2.03	Sabadell	2017.03.11	

→ <https://kirolerrekorak.eus/hamid-ben-daudek-maratoiko-errekorra-onduratu-du-2-06-35-markarekin/>

## Hamid Ben Daoudek maratoiko errekorra gaititu zuen 2021an

2022.03.25 | [ATLETISMOA](#), [ERREKORRAK](#), [GIZONAK](#) |

2021eko abenduaren 5ean Valentzian jokaturako maratoian. 2.06.35 marka erregistratu zuen. Aurretik ere berak zuen Euskal Herriko errekorra 2.07.03 denborarekin.



Euskal Herriko maratoi errekorra ondu zuen **Hamid Ben Daoudek** 2021eko abenduaren 5ean Valentzian jokaturako maratoian. 2.06.35 marka erregistratu zuen, aurretik berak ezarria zuen Euskal Herriko errekorra onduz.

**Hamid Ben Daoud** (Ksar Oukhit, Maroko, 1996) 14 urterekin bizitza hobe baten bila iritsi zen Euskal Herrira Espainiako muga autobus baten azpian igaro ondoren. Zornotzako adingabeen zentrotik pasatuta, **Hassan Reddad** entrenatzaileak bideratu zuen atletismora Loiuko Zabalotxe zentroan. Gaur egun Zamudion bizi da, eta **Bat Basque Team Fundazioaren** programan ari da Getxoko (Bizkaia) Faduran atleta profesionala izateko ahaleginetan.

Progresio ikusgarria egin du maratoian. 2017an, 21 urterekin —2.12.31— eta 2018an —2.10.21— Valentzian; 2019an, Pragan —2.08.14—; 2020an, Sevillan —2.07.33— eta Valentzian —2.07.03 —; eta, azkena, 2021ean, Valentzian —2.06.35—.

**Ben Daoudek** 12. postua egin zuen Valentziako maratoiaren sailkapenean. Irabazleak, gizonezkoen sailean, **Lawrence Cheronok** (Kenia) 2.5.12 marka erregistratu zuen. Eta, emakumezkoetan, **Nancy Jelagatek** (Kenia) 2.19.31 denborarekin iritsi zen helmugara.

Errekorrak, kirolak eta bizitzak elkarrizketa interesgarria egin zion **Mikel O. Iribar** kazetariak Berria egunkarian: Hamid Ben Daoud: «Gauza handia da [Espainiako] marka berdintzea, baina hobetzeko gogoz geratu naiz»